Martutene

# Martutenearrak erabakien zain

**Amaia Etxeberria-** (943-210937)

Gaur egun bost dira Urumeako autobia egiteko proposatu diren egitasmoak. Horietatik lau Aldundiak aurkeztu ditu eta bostgarrena Okendotegi elkarteak. Astelehenean, hilak 23, Okendotegik bere egitasmoa aurkeztu zuen Batzar Nagusitan. Martutenearrek beren proiektua defendatzeko izandako azken aukera izan da.

Aldundiak proposatu dituen hiru aukera berriak, hasieratik aurkeztu zuen proiektu ofizialaren aldaketak besterik ez dira. Kal-tetutako elkarteko kideen aburuz, autobia egiteko lau aukera hauek Okendotegi elkarteak proposaturiko proiektuak baina kalte handiagoak eragingo dituzte . Oken-dotegikoen proiektuak etxola bat botatzea aurreikusten du eta Aldundiaren proiektuekin berriz, hainbat baserri desagertuko lirateke. Aldundiaren proposamen batek Okendotegi proiektuaren antza handia du. Hala ere, Okendotegiren proiektuak bi tunel egitea aurreikusten du eta Aldundiarenak bakarra. Hala ere, Aldundiko proiektuak bi baserri botako lituzke eta elkartearen proiektuak berriz, bat bera ere ez.

*"Gu ez gaude autobiaren kontra, betidanik esan dugu beharrezkoa dela. Baina ahal den kalte gutxien eragin dezan nahi dugu"* esan digu Koldo Aduriz Okendotegi elkarteko kideak.

## Okendotegikoen proiektuak ez luke baserri bakar bat ere eraitsiko



Martutenearrek apur bat itxaron beharko dute oraindik autobiaren bidea eta xehetasun guztiak jakiteko.

### Okendotegikoen eskaerak

-Donostia eta inguruak lotzen dituen komunikazio bide lau bakarra mantentzea.

-Mendiaren suntsipenak ekar dezakeen ingurugiro kalteak saihestea.

-Martutene eta Hernaniko kaltetuen elkartearen arabera, Aldundiaren proiektuak honako ondoriak izango ditu:

-Bederatzi Etxebizitza eraikin eraistea

-Hainbat baserri desagertzea, eta ondorioz, hainbat eta hainbat familien bizimodu aldaketa

-Zortzi etxebizitza eraikinek etxeetatik 10 metrora izango lukete errepidea.

DIRU KUTXAK, ZERRAILAK
ETA GILTZAK EGITEN ADITUAK

EJARRETA

24 ORDU

Larrialdiak: (943) 907-523333

Usandizaga, 16 behea
Miguel Imaz, 6 behea
DONOSTIA

☎ (943) 27 18 14
☎ (943) 29 16 81
Faxa: (943) 28 43 84

Zorroaga
HILETA ZERBITZUAK

GAUZA HAUEK ESKAINTZEN DITUGU:
Hileta kontu guztiak - Hil-kutxen erakusketa eta salmenta
Lore-koroak - Eskela papereak - Hildakoak herri batetik beste batera eramatea; baita atzerritik ere
Debaldeko aparkalekua (Artzai Onaren azpian)
Tanatorioa

ORDUTEGIA: goizeko 6etatik gaueko 12ak arte

Hondarribia 21 • Tel.: (943) 42 21 29 • Faxa: (943) 42 21 29